

GOIZ GORRI, ARRATS EGURALDI

Izadiaren inguruan eta izadiari begira bizi izan diranak sarritan botaten ditue esakera bizi bikainak. Unean uneari dagokozanak. Asten zara berbetan eta, zapla, gitxien uste dozunean, antxe botako deutsue, lainoei, aizarean ibilkereari, eulien egaztadeari, eta gura badozu, txorien kantakereari dagokon esakerea. Orrelakoetan bat, buru lez ipini dodana: «Goiz Gorri, arrats eguraldi». Beste lekuren batzuetan bestera be esaten da, «arrats euri». Dana dago eguraldiari begiratu eta begiratu ondoren, esperientzi bategi emon dabenari erantzunez emona.

Joan zan edurtean, danok ikusia dogu, txoririk izuenak be etxe inguruko egiten dirana. Gaztela zozoa, berez da etxe ingurukoa, baina mingorra etxe giora etortea, kaioa etxepeko janariak batzera sartzea... Neguko goseak egiten dituan mirariak dira.

Gizadiaren historiari begira asten gareanean be bardintsu jazoten da: larrialdiak beti sortzen dau irudimena. Aukera aundiak dagozanean, aukera larregiak beti sortzen ditu kristiak. Bizkaiko futbolarien artean jazoten danari begiratzea da naikoa. Emen ez dabe eurentzako lekurik eta kanpora joan bearra etorten jake. Gero jokalaria aundiao egitea be baleiteke, eta barriroetxe ratzeko alegin aundiak egin bear izten ditue.

Gaurko egunean emoten diran Eleizako estadistikei begira bein baino geiagotan egon izan naz. Eta zer ikusi dodala uste dozue? Esturaldian zerbitzu bokazi-

no geiago sortzen dirala. Ez dakit noiz izan zan be, baina Arantza Urretabizkaiak «Deiaren» domekeroko osogarrian zera inoan, gaurko egunean jenteak ez daukala dirua inbertitu eta lanbide iturri barriak sortzeko amesik. Gaurko gaztediak, inoskun, Estatuaren enplegatu izateko amesak zituala. Urtero 14 soldata alogera jaso eta kitto! Ez egoala ezelango idealik baztarretan esaten eban, ames egitea be galazota egoala.

Urretabizkaiak planteatzen eban egoerea erosoegia izango da. Neuk alan uste dot. Afrikara, Ego Ameriketara eta begiratzen dodanean, seminarioetan gazte asko ikusten ditut. Egoera erosoak, aukera nasaiegiak, idealak moteldu egiten dituala esango neuke. Egoerea estutu egiten danean, orduan osterera, alkarri laguntzea, alkarren zerbitzari izatea, indartsu jagiten da. Zergaitik danik ezingo neuke esan, olantxe gertatzen dana, osterera, ori begien aurrean dago.

Gure seminarioak estu eta larri dabilz. Euskalerriko Eleizeak bere kontura arturik daukazan Misino Lurrak, bai abadeenak eta bai fraileenak, lerrenak jotzen dabilz. Baina azken partean, porroaz erdi ilik dabilzanak eurak asi jakuz fede autormenak egiten. Zer deritxazue? «Goiz gorri, Arrats eguraldi?» Ondo bizi izatez aspertzen goazela esango neuke, eta egun barrien atarian gagozala. Baietz «eguraldi» barriak etorri.

Sabin BARRUETABEÑA, cp.